

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2025eko ekitaldiko errolda

Iragarki hau argitaratu eta hurrengo hogeitun egun baliodunetan jendaurrean egongo da trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2025eko errolda, interesa dutenek aztertu eta egokituz jotzen dituzten oharrak aurkeztu ahal ditzaten.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2025eko ekitaldiko errolda dela-eta alegiaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsitaz joko da eta kobratzeko moduan jartzeko aldia hasiko da.

2025eko martxoaren 15etik maiatzaren 14ra bitarteko egun baliodunetan, bi horiek barne, ordaindu ahal izango da, borondatezko epean, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, 2025eko ekitaldikoa.

Zerga horren zergadunek udalaren diruzaintzan ordaindu ahal izango dute, adierazitako epean, 10:00etatik 14:00etara.

Era berean, zergadunei gogorazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu dezaketela.

Borondatezko epean ordaintzeko epea igarota, zorrak premiamendu bidetik ordainaraziko dira eta premiamendu erreargua eta berandutze interesak eta, hala dagokienean, bidezko diren kostuak erantsiko zaizkie.

Dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten da.

Agurain, 2025eko otsailaren 12a

Alkatea

RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR